



ikastolak



LIZARRA IKASTOLA
LIZARRA



Inklusioa eta talde lana errezagoa da irribarre baten laguntzaz, Puy Osések irakatsi zigun bezala.

horiek gure ikastolako haurrak jasotzen ari dira eguerdiro ikasturte honetan abiatu den eskolaz kanpoko ekintza berri honen bitartez.

Ekintzaren ardatza jolasa eta ekimen ludikoa izanik, hezkuntzan baliagarriak diren hainbat konpetentzia lantzen dira zirkua bidez. Integrazioa eta talde sena indartzea ezinbestekoa dute zirkuan aritzen diren ikasleek. Adin eta behar ezberdinetako neska-mutilek bat egiten dute, elkarri eskua luzatuz, proposatzen diren ariketak egin ahal izateko.


Jolasa eta dibertsioa ardatz nagusiak diren arren, hezkuntzan baliagarriak diren beste hainbat konpetentzia lantzen ditugu

Gorputza lantzeko ere aukera ikaragarriak ematen ditu zirkuak. Adinako egokiak diren psikomotritate lanketak egiteaz gain, oreka mantentzeko jolasak tartekatzen dira maiz. Hau gutxi balitz, ez dugu ahaztu behar, zirkuan ikusten ditugun ikuskizunak egin ahal izateko gorputzaren kontrola maila altuan izan behar dugula; bai fisikoki, mentalki zein emozionalki. Eta, jakina, honek bat egiten du, paraleloan, ikasleen hezkuntza prozesuarekin.

Zirkuan ez dago aspertzeko astirik. Egun batetik bestera eman daitezkeen ariketak ugariak dira, hortaz, sorpresa hartu eta harritzeko aukera izaten dute gure zirkuko ikasle koskorrek. Batzuetan malabareak egiten dituzte baloi eta pilotak erabiliz, beste batzuetan zangoen gainean ibiltzen dira, bestetan zinta zapalaren gainean oreka mantentzen ikasten dute eta, egunen batean, baloi erraldoi baten gainean egoteko aukera ere izango dute...

Sudur gorrien eta uztai jolasen artean, hizkuntza lantzeko parada izaten dute tarteka-marteka pailazo eta malabarista ikasle txikiak. Euskal Herrian ez da zirkua horrenbeste landu eta, hortaz, gabezia ikusten dute bertako pertsonaiak izendatzeko orduan. Hau konpondu ahal izateko, zirkuko euskal pertsonaiak sortzen ari dira denen artean eta, konturatu orduko, bilduma ederra lortu dute.

Musika, pailazoak, kantak, laguntasuna, euskara, gorputzaren eza-gutza eta lanketa, magia, jaurtiketak, irribarreak... Nola ez, ba? Jarrai dezala ikuskizunak! ●



Zinta zapala zeharkatzen lagunek lagunduta.

Jaun-andreak, zirkua iritsi da!

HIRU ETA BOST URTE BITARTEKO IKASLEEI ESKAINITAKO ESKOLAZ KANPOKO EKINTZA BERRIAK IRRIBARREZ BETE DU IKASTOLA.

📷 Testua eta argazkiak Lizarrako Ikastola

Urrunean norbait entzuten da deika. Abestuz dator, eta buruan duen txano metalikoa kolpatuz haurren arreta deitzen hasi da. Bere ahots gozoak berotasuna ematen du, eta entzun orduko jarraika ditu umeak, bata bestearen atzean. Kantu eta keinuen laguntzaz materiala eskuratzen hasiak dira: uztaiak, baloiak, pilotak, zangoak, zinta zapala, sudur gorriak... Listo! Zirkua iritsi da!

Abentura berri honen gidaritzan

Puy Osés lizartarra dugu. Eskarmen-tu handia du zirkua munduan, izan ere, 16 urte baino gehiago aritu izan da munduan barrena karpa baten azpian hamaika paper ezberdin betez: akrobata, pailazo, malabarista, mago... Gainera, ipuin kontalari lana maisuki betetzen du, eta txotxongiloekin ere istorio paregabeak sortzeko trebetasun bikaina du.

Haurra zenetik erakarri izan du antzerkigintza eta zirkua munduak eta, orain, gogo eta ilusio

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zenbat urte daramatza Osések zirkua munduan?
2. Zein adineko haurrek jorratzen dute aktibitate hau?
3. Proposatu euskal zirkurako pertsonaia baten izena.

Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, telefono zenbakia, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Lur Ruiz (Ibaialde Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Alba Santamaria (Baztan Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua era-kundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian airtu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.